



# Ingurumen alorreko sentsibilizazioa, hezkuntza eta partaidetza

## Sensibilización, educación y participación ambiental




### 1. Ingurumen-kontsultak

Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzuan, baita Cristina Enea Fundazioan ere – Bizikletaren Behatokia barne –, ingurumenari buruz egindako kontsulta kopuruaren urteko bariazioa jasotzen du adierazle honek. Goranzko joera lortzea da helburua.

### 1. Consultas ambientales

Este indicador recoge la variación anual del número de consultas registradas en el Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad del Ayuntamiento de San Sebastián y en Fundación Cristina Enea, incluyendo las dirigidas al Observatorio de la Bicicleta, relacionadas con temas ambientales, siendo la tendencia deseable el aumento.

Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzuan 2018an egindako kontsulta kopurua Número consultas Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad 2018	(a)
CEFn 2018an egindako kontsulta kopurua Número consultas FCE 2018	(b)
2018ean egindako kontsulta kopurua, guztira Número consultas totales 2017	(c)
$\left(\frac{a+b}{c} \cdot 100\right) - 100$	
<b>Urteko bariazio-tasa: % 3</b>	<b>Tasa de variación anual: 3 %</b>



Kontsulta kopuruak gora egin du, % 3 2018. urtean 2017. urtearekin alderatuta, hiru urtez jarraian behera egin ondoren. Kontsulta kopuru gehienak hondakinak, materia organikoa biltzeko edukiontzien inguruan, auzo eta banakako konpostaren inguruan, bioaniztasunaren inguruan, energiaren inguruan, Klima-aldaketaren inguruan, zarataren inguruan eta Donostitruken inguruan izan dira, baita Cristina Enea Fundazioko Ingurumen Baliabideen Etxean garatzen diren jardueren inguruan eta Bizikletaren Behatokian bizikletaren erabilerari buruz egindako kontsultak. Ingurumenari buruzko gaiek presentzia handia dute gizartean, eta hiritarrek ere garrantzi handia ematen diete. Horregatik, informazio-eskaera nabarmena da. Kontsulten % 55 inguru emakumeek egin dituzte, gizonezkoak, ordea, % 45.

El número de consultas se incrementa un 3 % en 2018 respecto a 2017 tras tres años consecutivos de descenso. Los temas que han generado un mayor número de consultas han sido los residuos, el contenedor de recogida de materia orgánica, el compostaje comunitario e individual, la biodiversidad, energía, Cambio Climático, el ruido y Donostitruk, así como cuestiones relacionadas con las actividades que se desarrollan en el Centro de Recursos Medioambientales de Fundación Cristina Enea y el uso de la bicicleta que se recogen en el Observatorio de la Bicicleta. Se constata que los temas ambientales están presentes en la sociedad, siendo objeto de atención ciudadana; esto explica la importante demanda de información. Alrededor del 55 % de las consultas están realizadas por mujeres, correspondiendo a los hombres el 45 %.




## 2. IKS osatzen duten kideen kopurua

Donostiako Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala osatzen duten elkarten kopuruak izan duen urteko bariazioa azaltzen du. Joera horri eustea da helburua.

## 2. Número de integrantes del CSMA

El indicador muestra la variación anual que se produce en el número de entidades que integran el Consejo Sectorial de Medio Ambiente de San Sebastián, siendo la tendencia deseable el mantenimiento.

Kide kopurua 2018an Número de integrantes en 2018	(a)	Kide kopurua 2017an Número de integrantes en 2017	(b)
$\left( \left( \frac{a}{b} \right) \cdot 100 \right) - 100$			
<b>Urteko bariazio-tasa: % 0</b>		<b>Tasa de variación anual: 0 %</b>	



Ingurumeneko Kontseilu Sektorialaren Araudiaren (IKS) behin betiko Onespenak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko apirilaren 13an argitaratu zena, aurreko Kontseilua desagitea ekarri du. Ingurumeneko Kontseilu Sektorial berriaren Eratze Bilkura 2015eko azaroaren 3an egin zen.

2015eko eratze-prozesuaren ondoren eta 2018. urterate, hiriko 26 erakundek, gizarte-ospe bereziko kolektibok eta hainbat norbanakok osatzen dute Ingurumeneko Kontseilu Sektorial berria, Udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako delegatuekin batera. Erakunde eta kolektibotatik % 70 aurreko Kontseilu Aholkulariko kide ziren elkarteak dira.

IKSean dauden erakundeak tipología ezberdinetakoak dira: erakunde ekologistak eta naturaren defentsakoak, EHUko ordezkariak eta Eskolako Agenda 21 programak dituzten ikastetxeak, erakunde zientifikoak, etb. Hiru norbanakok ere hartzen dute parte, bere garaian hala eskatu zuten-eta. Organo honek aholkularitza eta hiri-partaidetzarako funtzioak betetzeko moduko kideak biltzen ditu, aldaera zein kopuruari begiratuta.

Erakundeen % 31 emakumeek ordezkatzeko dituzte, eta % 69, gizonezkoek.

Con la Aprobación definitiva del Reglamento del Consejo Sectorial de Medio Ambiente (CSMA), publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el lunes 13 de abril de 2015, se disuelve el anterior Consejo, celebrándose la Sesión Constituyente del nuevo Consejo Sectorial de Medio Ambiente el 3 de noviembre de 2015.

Desde entonces, hasta 2018, son 26 las entidades ciudadanas, colectivos de especial relevancia social y personas a título individual quienes integran el Consejo Sectorial de Medio Ambiente, además de las personas delegadas de todos los grupos políticos con representación en el Consistorio. El 70 % de las entidades y colectivos son asociaciones que ya formaban parte del anterior Consejo Asesor.

Las entidades presentes en el CSMA son de tipología diversa: organizaciones ecologistas y de defensa de la naturaleza, representantes de la UPV-EHU y de centros educativos con programas de Agenda 21 Escolar, entidades científicas, etc. También forman parte tres personas a título individual que se postularon en su día. Se considera que este órgano recoge en su seno una variedad y número de integrantes apropiado para cumplir las funciones de asesoramiento y participación ciudadana.

El 31 % de las entidades están representadas por mujeres, y un 69 % las representan hombres.




### 3. IKSaren bileretako partaidetza

Ingurumeneko Kontseilu Sektorialaren urteko ohiko bileretan kideen batez besteko asistentzia zenbatekoa izan den adierazten du adierazle honek, kontseilua osatzen duten kide eta pertsonen kopuruarekin alderatuta. Goranzko joera lortzea da helburua.

### 3. Participación en las reuniones del CSMA

Este indicador representa el promedio de asistencia de las entidades y personas integrantes del Consejo Sectorial de Medio Ambiente (CSMA) a las reuniones ordinarias celebradas durante el año, poniéndolo en relación con el número de miembros que lo componen. La tendencia deseable es el aumento.

$\frac{\sum \text{Parte-hartzaile kopurua 2018ko bileratan}}{\sum \text{N}^\circ \text{ de participantes en las reuniones 2018}}$	(a)= 34
2018ko bilera kopurua Número de reuniones 2018	(b)= 34
2018n IKS osatzen zuten kideen kopurua Número de integrantes del CSMA 2018	(c)= 26
$\left( \frac{(a/b)}{c} \right) \cdot 100$	
<b>Partaidetza tasa: % 33</b>	<b>Tasa de participación: 33 %</b>



Iturria: Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua.  
Fuente: Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad, del Ayuntamiento de San Sebastián.

2018. urtean egindako lau bileretan parte-hartze maila % 33koa izan da. IKSko kide guztien % 54ak lau bilera horietako batean hartu dute parte gutxienez. Bileretara joan diren ordezkarien % 26 emakumezkoak izan dira, eta % 74 gizonzkoak. 2015. urtearekin alderatuta (Kontseilua eratu zen urtea), bileretara bertaratutakoen ehunekoak behera egin duela ikus daiteke. Partaidetza tasak portzentajezko 7 puntu behera egin du 2017. urtearekiko.

En las cuatro reuniones celebradas durante 2018, la tasa de participación ha sido del 33 %. Un 54 % del total de integrantes del CSMA ha acudido, al menos, a una de estas cuatro reuniones. El 26 % de representantes que han acudido a las reuniones han sido mujeres, siendo el 74 % hombres. Se ha podido apreciar que la participación ha disminuido con respecto a las asistencias registradas desde 2015, año de su constitución. La tasa de participación ha descendido 7 puntos porcentuales respecto a 2017.



## DATUEN UDAL BEHATEGIA JARRIKO DA MARTXAN

Lehendakaritza Sailean egituratzen den Informazioko Udal Unitatean lan mardula egiten dihardute Datuen Udal Behategia abian jartzeko. Hiru aldetan egiten ari dira lan.

Batetik, udaleko sailtako datu guztiak antolatzen eta automatizatzen ari dira, udal-gestioa ezagutzaren eta informazio aurreratuaren tratamenduaren aroan sartzeko (Big Data) eta gardentasuna eta informazio publikoa eskura izatea bermatzeko (Open Data). Tresna horri "Donostia Data" deitu zaio.

Hiriaren Behatokia ere diseinatzen eta eraikitzen ari dira; Behatoki horrek, datu garrantzitsuak eta informazio osagarria jaso eta ordenatzeaz gainera, informazio guzti hori jakintza bihurtuko du. Horri esker jakingo dugu hiri bizigarriago eta jasangarriagoa izateko bidean Donostia non dagoen, erabakirik egokienak hartu ahal izateko.

Eta guzti horrez gainera, "Entzuketa Komunitario Aktiboa" izeneko Plataforma ere egituratzen ari da. Eguneroko bizi-penetatik eta komunitatearen ekintzetatik abiatuta topaketarako eta konfiantzazko espazioak sortuko dira, non pertsonak izango diren protagonistak; euren esperientzia propioari garrantzia emango diote eta hausnarketa egingo dute, ea nola eraiki daitezkeen auzoak eta hiria bera denon artean.

Hau guztia ez da lan erraza, aldez aurretik definitu behar izan direlako nazioarteko akordioetan eta Europar Batasunak hartutako konpromisoetan oinarritutako hiri jasangarri baten funtsezko parametroak. Premisa horietatik abiatuz, proposatutako ereduaren aurrean Donostiak zein egokitzapen-maila duen neurtuko duten adierazleak identifikatu dira; horretarako, barne-prozedura eta mekanismoak garatu dira udal-administrazioan, adierazle bakoitza lantzeko beharrezkoak diren datuak jaso ahal izateko.

Adierazleen sistema etengabe elikatuta egongo da eta hiriaren egoeraren berri emango du hiri jasangarri bati dagozkion dimentsio guztietan: berdintasuna eta kohesio soziala, mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsala, espazio publikoaren kalitatea eta ingurumen egokia edo hiri-metabolismoa bera, esaterako. Oinarri-oinarrizko ezagutza horrekin erronkak eta aukerak identifikatu, ekintzak diseinatu eta erabaki egokiak hartzea ahalbidetuko duten etorkizuneko eszenatokiak sortuko dira.

Etengabe berrelikatzen egongo den tresna horrek ikerketa puntualak ere egingo ditu, lurralde, auzo edo jarduera ekonomiko jakin baten egoera aztertzeko.

## PUESTA EN MARCHA DE UN OBSERVATORIO MUNICIPAL DE DATOS

Desde la Unidad Municipal de Información estructurada en el Departamento de Presidencia se viene desarrollando un intenso trabajo con el fin de poner en marcha un Observatorio Municipal de Datos. Para ello se viene trabajando en tres frentes interrelacionados.

Por un lado, organizando y automatizando todos los datos que obran en los diferentes departamentos municipales con el fin de introducir la gestión municipal en los parámetros de la era del conocimiento y el tratamiento de información avanzada (Big Data), garantizando al mismo tiempo la transparencia y el acceso a la información pública (Open Data). A esta herramienta se le ha dado el nombre de "Donostia Data".

Además, se viene diseñando y construyendo un Observatorio de la Ciudad que, además de captar y ordenar datos relevantes e información complementaria, permita transformarla en conocimiento, de forma que sirva para conocer y medir el estado de la ciudad en relación a un modelo más habitable y sostenible, permitiendo así tomar las mejores decisiones.

Y también se está articulando una Plataforma de "Escucha Comunitaria Activa" que permita ir construyendo espacios de encuentro y confianza a partir de la vivencia cotidiana y de acciones comunitarias, en los que las personas son las protagonistas, poniendo en valor su propia experiencia y reflexionando sobre cómo se pueden construir los barrios y la ciudad de manera conjunta.

El trabajo es arduo pues ha requerido previamente definir los parámetros fundamentales de un modelo de ciudad sostenible basados en los acuerdos internacionales y los compromisos adquiridos en la misma Unión Europea. Partiendo de esas premisas se han identificado los indicadores básicos que permitirán medir el grado de acomodamiento de la ciudad al modelo propuesto; para ello se han desarrollado los procedimientos y mecanismos internos en la administración municipal que posibiliten obtener los datos necesarios para la elaboración de cada indicador.

El sistema de indicadores permanentemente alimentado se configura así como una herramienta que facilitará el conocimiento del estado de la ciudad en las diferentes dimensiones de una ciudad sostenible: igualdad y cohesión social, movilidad y accesibilidad universal, calidad del espacio público y un medio ambiente adecuado...o el conjunto de su



Udalak erabakiak hartzerako orduan, beraz, Datuen Udal Behatokia oinarritzko tresna izango da, baina ez hori bakarrik, udal-gestioa arindu eta hobetzeaz gainera, gardentasuna eta Udalaren esku dagoen informazioaren eskugarritasuna ere bermatuko baitu.

metabolismo urbano, por ejemplo). Un conocimiento básico para identificar retos y oportunidades, diseñar acciones y formular escenarios de futuro que permitan adoptar las decisiones adecuadas.

La retroalimentación permanente de la herramienta en construcción también va a permitir efectuar estudios puntuales de la situación de un ámbito territorial, de un barrio o sector de actividades económicas concreto.

De este modo, el Observatorio Municipal de Datos se configura como una herramienta básica para la toma de decisiones del Consistorio, además de agilizar y mejorar la gestión municipal y asegurar la transparencia y el acceso a la información que obra en poder del Ayuntamiento.

Informazio gehiago:

### Donostia Data

[www.donostia.eus/ataria/web/donostia-data/hasiera](http://www.donostia.eus/ataria/web/donostia-data/hasiera)

Más información:

### Donostia Data

[www.donostia.eus/ataria/es/web/donostia-data/hasiera](http://www.donostia.eus/ataria/es/web/donostia-data/hasiera)